

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2017ko 3. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

BPGaren urte arteko aldakuntza tasa %3,0an kokatu zen 2017ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko txostenetan aipatu zen egonkortasunari jarraipena emanez: bi urtez jarraian (2015ean eta 2016an) %3,1 hazi ondoren, 2017ko gehikuntza tasa balio horren zertxobait azpitik bakarrik (lehen hiru hiruhilekoen batez bestekoa %2,9 da) dago. Hori horrela izanda, zikloaren gehienezko balioa (%3,4) 2016ko lehen hiruhilekoan lortu ondoren, moteltzekoaldi batean murgildu zen aurtengo hasierara arte (%2,8). Harez geroztik, BPGak bultzadaren zati bat berreskuratu du. Erritmoak erakusten duen egonkortasun hori espainiar ekonomian ere hautematen da (%3,1 hirugarren hiruhilekoan) eta inguruneko ekonomia nagusiek lortu dituzten emaitza onez baliatzen da, Europar Batasunak %2,6ra arte hobetu baitu bere hazkundeak.

EAEko ekonomiaren hazkunde eredua, eskariaren ikuspegitik, barne merkatuaren sendotasunean oinarritzen da oraindik, kanpo saldoak hazkundeari bi hamarren soilik kendu zizkion bitartean. Alde batetik, esportazioek nabarmen areagotu zuten beren hazkundeak eta %3,7ko urte artekoa jaso zuten, aurreko datuen oso gainetik, eta iradokitzen dute helburu merkatuen hobekuntza EAEko produktuak bultzatzen ari dela. Beste aldetik, EAEko ekonomiaren berezko bizitasunak inportazioak %3,9 igoarazi zituen.

Kanpo saldoaren okertze txikia barne eskariaren bultzadak aise konpentsatu zuen, %3,1 hazi zelako, hots, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago. Agregatuaren bi osagaiek hobetu zuten urte arteko bilakaera, baina bereziki azpimarragarria da kapital eraketa gordinaren bultzada, kontsumo publikoaren gorabeherak azken kontsumoa baldintzatzen duten bitartean. Kontsumo pribatua, berriz, %3,0 gehitu zen eta dagoeneko hiru urte baino gehiago eman du tasa horren antzekoan edo zertxobait handiagoan hazten.

Aipatua izan denez, kapital eraketa gordinak aurreko epealdietan baino itxura dinamikoagoa eskaini zuen eta %3,9 hazi zen. Agregatuaren bi osagaiek egiten duten ekarpena gero eta orekatuagoa da. Izan ere, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa oraindik sendoa da (%4,5), baina moteltze arina erakutsi du. Aitzitik, gainontzeko inbertsioa (%3,5) indarra hartzen ari da eraikuntzak bere hazkunde erritmoa finkatzen duen heinean. Azken kasu horretan, 2007ra itzuli behar da tamaina horretako gehikuntza tasa bat aurkitzeko.

Sektoreen ikuspegitik, hiru nagusietako aldakuntza tasetan lortzen ari den homogeneousutasuna nabarmendu behar da. Oreka horrek EAEko ekonomiaren hazkundeak gehiago luzatzea ahalbidetuko du, arlo bakar batean oinarrituta ez delako egongo. Hain zuzen ere, hirugarren

hiruhilekoan, eraikuntzak bat egin zuen gainontzeko bi sektoreek daukaten bilakaera onarekin eta %3,0 gehitu zen, aurtengo lehen erdian jasotako emaitza puntu oso batean hobetuz. Orobat, industriak %2,7ko urte arteko gehikuntza eskuratu zuen, bigarren hiruhilekoaren datua lau hamarrenetan gaindituz. Hala manufakturek nola energiak erritmo garrantzitsuak izan zituzten erreferentziako epealdi horretan.

Zerbitzuek modu egonkor eta jarraituan handitu zuten beren balio erantsia eta %3,1eko tasa lortu, aurreko bi epealdietan jasotakoetatik hamarren bakar bat desbideratzen dena. Gehikuntza horren osaera merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituzten jarduerak lideratu zuten berriro, %3,8 nabarmena goratu zirelako, aurreko balioekin bat eginda. Beste aldetik, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen dituen atalak %2,6ko tasa eskuratu zuen, bigarren hiruhilekoan lortutakoa baino puntu erdi bat gutxiago, nahiz eta oraindik 2015eko eta 2016ko batez bestekoaren gainetik segitu. Azkenik, gainontzeko zerbitzuak %3,0 hazi ziren, aurreko datua berdinduz.

BPGaren bilakaera onaren ondorioz, enplegua %2,1 hazi zen 2017ko hirugarren hiruhilekoan aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta. Tasa hori eta aurreko hiruhilekoetan bildutakoak antzekoak dira. Beraz, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopuruak 937.000 enpleguen langa gainditu zuen sei urte beranduago. Halaber, azken hamabi hilekoetan 20.000 lanpostu garbi sortu ziren. Haietatik, 15.000 inguru zerbitzuetan gauzatu ziren, baina gainontzeko sektoreek ere zenbaki esanguratsuak lortu zituzten. Enplegu sorrera garrantzitsu horrek esan nahi du produktibitatearen irabaziak (%0,7 aurtengo lehen hiru hiruhilekoen batez bestekoan) serie historikoan, 1995ean hasi baitzen, lortu den batez besteko emaitza (%1,1) baino zertxobait txikiagoa dela, baita 2016koa (%1,2) eta aurreko urteetakoak baino txikiagoa ere.

EAEko ekonomiaren hedatzeak ez du oraindik tentsiorik sortu prezioen bilakaeran. Zehazkiago adierazita, BPGaren deflatoarea %1,0an kokatu zen eta azpiko inflazioa, kontsumoko prezioen hondoko joera hobeto erakusten baitu, %0,8ra iritsi zen azaroan, argitaratu den azken hilekoan. Beste aldetik, KPI orokorra altuagoa da (%1,6) osagai hegakorren (energia eta elikagai freskoak) eraginagatik.


Kontu ekonomikoek hirugarren hiruhilekorako zenbatetsi duten BPGaren gehikuntza bat dator Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenarekin, beraz oraindik pentsatzen da EAEko ekonomia aurtun %2,9 haziko dela eta 2018an hazkunde tasa %2,5era motelduko dela, beste erakunde batzuek inguruneko ekonomientzat aurreratu duten joerarekin bat eginez. Enplegu garbia sortzen jarraituko da, aurtun %2,0 eta datorren urtean %1,7, hurrenez hurren 18.700 eta 15.600 lanpostu direlarik.

EKONOMIAREN INGURUNEA


Aurtengo hirugarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak bere bizitasunari eutsi zion eta aurrera egin zuen bai ekonomia aurreratuek bai azaleratzen ari direnek hoberantz egin zutelako. Izan ere, lehen zenbatespenen arabera, munduko BPGa %3,6 inguru hazi zen, aurreko hiruhilekoan beste eta 2017 urte osorako kalkulatu den tasa bera. Orobat, eskura dauden adierazleek seinalatzen dute munduko merkataritza eta inflazioa suspertzen ari direla, azken hori nagusiki energiaren salneurriak igo direlako, baina baita ere elikagaien prezioek igoera neurritsua ezagutu dutelako.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Brasil



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Garapen bidean dauden herrialdeek, oro har, hazkunde erritmo garrantzitsu bat eskuratu zuten. Hain zuzen ere, %4,6 hazi ziren, aurreko hiruhilekoko emaitza berdinduz. Beste hiruhileko batez, Txina izan zen eremu horretako bultzagile nagusia. Herrialde horretako BPGa zertxobait apaldu zen 2017ko hirugarren hiruhilekoan eta %6,8an kokatu zen, aurreko hiruhilekoaren %6,9aren aldean, baina bertako ekonomia jarduerak sendoa eta iraunkorra izaten jarraitu zuen. Berrito ere, ekonomia pizteko politikak hazkundera bultzatu zuten. Beraien artean, azpiegiturretan eginiko inbertsio publikoaren bilakaera positiboa nabarmendu behar da. Orobat, esportazioen emaitza ona aipatu behar da (irailean %8,1 hazi ziren), munduko jardueraren gorakadak bultzatuta. Datuek pentsarazten dute 2017an gaitutuko dela bertako gobernuak aurreikusitako %6,5eko helburua eta agian baita 2016an lortu zen gehikuntza ere (%6,7). Inflazioak, kontsumo prezioen bitartez neurtuta, maila neurritsuetan jarraitu zuen, nahiz eta urrian %1,9ra igo zen arren.

Lehengaiak esportatzen dituzte herrialdeen artean, Brasilen BPGa %1,4 handitu zen. Beraz, aurreko hiruhilekoan hasi zen susperraldia finkatu da, ia hiru urtez jarraian etengabeko jaitsierak pairatu ondoren. Kontsumo pribatuaren eta esportazioen bultzadak azaltzen du herrialdearen gehikuntza. Horri esker, Amerika Latinoko ekonomiarik handiena ofizialki irten da bere historiako atzeraldirik gogorrenetik. Mexikar ekonomiak, berriz, indarra galdu zuen eta ia erdira jaitsi zuen bere erritmoa (aurreko %3,1etik %1,6ra). Alde batetik, moneta eta zerga baldintza murriztaileek eta, beste aldetik, herrialdea astindu zuten natur hondamendiek kalte egin zioten. Izan ere, irailean Mexikon bi lurrikara gertatu ziren eta, halaber, Harvey urakanaren ondorioz petrolio ekoizpena gelditu zen. Aurreko guztia dela eta, iraileko ekoizpena 1980tik inoiz jaso den txikiena izan zen. Hala eta guztiz ere, moteltze hori iragankorra izango dela aurreikusten da eta berreraikitze lanek urte amaieran hazkundera suspertzea ahalbidetuko dutela espero da.

ELGEko herrialdeak, oro har, %2,6 hazi ziren, hots, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago. Orobat, datu hori 2015eko erdialdetik lortu duen onena da. Zehazkiago, AEBetan ekonomia jardueraren hedatzea bosgarren hiruhilekoz jarraian bizkortu zen. Kontsumo pribatua eginiko gastuak 1,1 puntu ekarri zizkion jarduerari eta BPGaren bultzagile nagusia izan zen berrito, lan merkatuaren etengabeko hobekuntzan oinarrituta. Izan ere, familien kontsumoak jaso zuen %2,6ko hazkunde tasa eta inbertsioaren, hala egoitzetan eginikoa nola gainontzeko ataletan eginikoa, bizitasunak kontsumo eta inbertsio publikoaren ahultasuna eta inportazioen gorakada konpentsatu zituzten. Aurreko guztiaren ondorioz, herrialde hartako BPGa %2,3 handitu zen. Lan merkatuak emaitza onak eskaini zituen berrito eta urrian langabezia tasa %4,1era gutxitu zen, 2001eko urtarriletik inoiz jaso den tasarik txikiena delarik. Azkenik, inflazioak behera egin zuen berrito eta hileko horretako urte arteko tasa %2,0an kokatu zen.

Japoniako ekonomiaren bilakaera ona izan zen berriro. Oinarrian, moneta politika egokitzailak, kanpo eskariaren susperraldia eta lan merkatuaren sendotasuna daude. Hain zuzen ere, herrialde hartako BPGa %2,1 hazi zen eta dagoeneko hiru hiruhileko kateatu ditu hedatzeko bidean. Halakorik ez da gertatu 2013ko urtarriletik. Hobekuntza horren arrazoi nagusien artean, esportazioen gorakada (%6,3) dago, Txinako eskariaren igoerak eta yenaren ahultasunak bultzatuta. Orobat, inbertsioaren gorakadak ere lagundu zuen ekonomiaren hazkunderan. Kontsumo pribatuak ere ekarpena egin zion ekonomia jarduerari, nahiz eta berriro moteldu zen. Gobernuak kontsumo pribatua sustatzeko ahalegin handiak egin dituen arren (soldaten igoerak, kreditua errazteko neurriak eta abar), oraindik ezin izan da finkatu bere papera ekonomiaren bultzagile gisa. Halere, neurri horiek fruitua eman dute prezioen bilakaerari dagokionez, zeren eta KPIa 2017 osoan eremu positiboak egoteaz gain, urrian %0,8ra igo baitzen, bi urte eta erdian jaso duen baliorik gorena delarik.

Europar Batasunari dagokionez, hazkunderak jarraitu zuen eta gero eta sendoagoa da. Zehazkiago adierazita, 2017ko hirugarren hiruhilekoan, kontinente zaharra %2,6 hazi zen, Eurogunea beste. Bizitasun handiago hori orokorra izan zen eremua osatzen duten herrialde nagusien artean. Esate baterako, Alemanian ekonomia jarduera puntu erdi bat bizkortu zen, %2,8 arte, esportazioen eta inbertsioaren gorakadak, bereziki ekipamenduan eginikoak, bultzatuta. Frantzia, berriz, gehikuntza tasak (%2,2) lau hamarrenetan hobetu zuen aurreko hiruhilekokoa. Herrialde horretan, inbertsioak eta kontsumo pribatuak bultzatu zuten BPGa, kanpo arloak hamarren batzuk kendu zizkiolako jarduerari. Gorakada hori jarraian lortzen duen hirugarrena da eta, azkenean, Euroguneko bigarren ekonomiaren susperraldia finkatu du. Italiak ere aurreko emaitza hobetu zuen, kasu horretan bi hamarrenetan, %1,7ra arte, barne eskariaren -batez ere inbertsioaren- sendotasunari esker. Goranzko joera horretatik kanpo kokatu zen Portugal, aurreko tasaren aldean hazkundera moteldu zelako. Hala ere, herrialde hartako BPGa %2,5 handitu zen, esportazioak sendo hazi zirelako eta inbertsioak bizitasuna erakusten duelako. Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuak aurreko hiruhilekoaren emaitzari (%1,5) eutsi zion, zeren eta inbertsioaren dinamismo txikiagoa salmenten gorakadak konpentsatu zuelako.

Lan merkatuaren alorrean, Europar Batasuneko langabezia tasa %7,4an kokatu zen urrian, 2008ko azarotik inoiz izan duen mailarik txikiena baita. Datu horien arabera, herrialde multzo horretan 18,2 milioi lagun baino gehiago daude lanik gabe oraindik, haietatik 14,3 milioi Eurogunean. Aurreko urteko urriarekin alderatuta, langabezia datu alderagarriak dituzten EBko herrialde guztietan jaitsi da, Finlandian izan ezik, non langabezia tasak bere horretan jarraitu baitzuen. Dena dela, enpleguaren alorrean, eremua osatzen duten herrialdeen artean dauden aldeak oso garrantzitsuak dira oraindik eta Txekiar Errepublikako %2,7aren eta Greziako abuztuko %20,6aren artean kokatzen dira. Azkenik, Euroguneko inflazioak normalizatzeko urratsak eman ditu jardueraren garapenaren eskutik eta azaroan %1,5era iritsi zen.

Espainiar ekonomiaren BPGak %3,1ean jarraitu zuen hirugarren hiruhilekoan eta dagoeneko hamar hiruhileko eman ditu %3,0 edo gehiago hazten. Bizitasun hori barne eskarian oinarritu zen berriro, bereziki kontsumo pribatuan, inbertsioan eta, neurri txikiagoan, kanpo eskariaren ekarpen positiboan. Hala ere, kanpo saldoak protagonismoa galdu zuen berriro, hazkundeari lau hamarren bakarrik ekarri zizkiolako. Eskaintzaren ikuspegitik, agregatu guztiek gehikuntza tasa positiboak eskuratu zituzten eta tasa horiek aurtengo bigarren hiruhilekoan jasotakoan tamaina berekoak edo handiagoak izan ziren. Aldeko joera hori lan merkatuan ere islatu zen, non talde guztiek enplegua sortu baitzuten. Izan ere, enplegua %2,9 areagotu zen urte arteko tasan hirugarren hiruhilekoan. Datu horrek esan nahi du azken hamabi hilekoetan lanaldi osoko 501.000 lanpostu baliokide sortu zirela.

Azkenik, inflazioa %1,7ra arte moteldu zen azaroan, urriko emaitza baino hamarren bat gorago baina aurtengo otsailean jaso zen maximotik (%3,0) 1,3 puntu beherago. Datozen hilekoei begira, inflazioa maila apaletan jarraituko duela aurreikusten da, batez ere argindarraren salneurriaren oinarri efektuarengatik eta, neurri txikiagoan, euroaren balio irabaziak ekarriko dituen zuzeneko eta zeharkako ondorioengatik.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2016	2016		2017		
		III	IV	I	II	III
Azken kontsumoko gastua	2,5	2,3	2,1	1,9	2,1	2,0
- Familien gastua	3,0	2,7	2,7	2,3	2,4	2,4
- Administrazioaren gastua	0,8	0,8	0,0	0,7	1,1	1,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	2,7	2,7	4,8	3,8	5,4
- Aktibo finko materialak	3,4	2,9	2,8	5,0	3,9	5,4
- Eraikuntzan	2,4	2,1	3,1	4,1	4,0	4,9
- Ekipamendurako ondasunetan	4,9	4,1	2,5	6,3	3,8	6,1
- Jabetza intelektualeko produktuak	2,7	1,6	2,1	3,7	3,2	5,5
Nazio eskaria (*)	2,5	2,2	2,0	2,4	2,3	2,7
Esportazioak	4,8	3,8	4,5	6,5	4,4	4,9
Inportazioak	2,7	0,8	1,6	4,9	2,3	4,0
BPG (m.p.)	3,2	3,2	3,0	3,0	3,1	3,1
Nekazaritza eta arrantza	6,9	7,4	5,2	5,3	4,3	5,0
Industria	3,6	3,1	3,0	3,1	3,3	3,5
Eraikuntza	1,9	2,3	2,8	4,5	4,9	4,9
Zerbitzuak	3,0	3,1	2,8	2,6	2,7	2,7
Produktuen gaineko zerga garbiak	4,4	3,7	3,6	4,1	4,5	4,4
GOGORATZEKOAK						
- Kontsumoko prezioen indizea	-0,2	-0,2	1,0	2,7	2,0	1,7
- Enplegua (**)	3,0	3,1	2,7	2,6	2,9	2,9

Oinarri urtea: 2010. (*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2017ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak aurtengo lehen hiruhilekoan galdu zuen erritmoaren zati bat berreskuratu zuen eta BPGa %3,0 hazi zen. Tasa hori oso hurbil dago 2015ean eta 2016an, batez beste, lortu zen %3,1 hartatik. Beraz, azken hiru urteetan erakusten ari den hazkunde sendo eta nahiko egonkorreko irudia luzatu da. Bilakaera bizi horren gakoak honako hauek dira: oso hedakorra den moneta politika bat, ekonomia eragileen kostuak merkatu dituen, oraindik merkea den petrolioaren salneurria, nahiz eta azken hilekoetan garestitu den, balio pixka bat galdu duen euro bat eta munduko panoraman zegoen ziurgabetasuna gutxitu izana. Aurreko guztiak on egin die inguruneko ekonomia nagusiei ere, bereziki Eurogunean parte hartzen dutenei, beraren aldakuntza tasa %2,6ra bizkortu baita, 2011tik jaso duen gorena delarik.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016		2017		
		III	IV	I	II	III
BPG erreala	3,1	3,0	3,0	2,8	2,9	3,0
Nekazaritza eta arrantza	2,0	1,7	-1,5	4,2	-1,9	-1,9
Industria eta energia	2,9	2,6	2,7	2,0	2,3	2,7
- Manufakturen industria	3,7	3,4	3,6	2,2	2,7	2,5
Eraikuntza	1,8	2,2	2,4	2,1	1,9	3,0
Zerbitzuak	2,8	2,3	2,7	3,0	3,2	3,1
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,3	3,0	3,2	3,9	3,7	3,8
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,1	1,7	2,4	2,3	3,1	2,6
- Gainontzeko zerbitzuak	2,8	2,3	2,4	2,7	3,0	3,0
Balio erantsi gordina	2,7	2,4	2,6	2,7	2,9	3,0
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	8,4	6,4	3,3	2,4	3,0

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik, hirugarren hiruhilekoaren ezaugarria da hiru sektore nagusien hazkunde erritmoek bat egiteko urratsa eman dutela. Izan ere, urte arteko tasek lau hamarreneko urkila estua osatu dute, mutur batean zerbitzuek eskuratu duten %3,1a dagoela eta bestean industriaren %2,7a. Orobat, eraikuntzaren bizitasuna nabarmendu behar da, bere

balio erantsia %3,0 areagotu zuelako, lehen urte erdian jasotako emaitza puntu oso batean hobetuz. Horri esker, sektore horrek aurreko hiruhilekoetan erakutsi zuen susperraldia finkatu zuen. Eskura dagoen koiunturako informazioak adierazten du bultzada hori bereziki eraikinen ataletik datorrela, baina obra zibila ere nolabaiteko hobekuntza erakusten hasi dela. Hain zuzen ere, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako lizitazio ofizialak aurreratzen duenez, datozen epealdietan lan karga handia egongo da atal horretan. Beste aldetik, Eustatek osatzen duen eraikuntzaren koiuntura indizeak, hirugarren hiruhilekoan, %1,9 gehikuntza zenbatetsi du eraikinetarako eta %-9,1, berriz, obra zibilerako. Orobat, etxebizitzaren salmentak aldeko tonuari eusten dio eta etxebizitza berriak eraikitzeko bisatuek oso bultzada garrantzitsua izan dute udako hilekoetan.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016		2017		
		III	IV	I	II	III
Industria						
Industria produkzioaren indizea	2,3	1,1	3,5	2,5	2,5	3,0
Industria giroaren indizea	-4,8	-9,5	-7,6	-4,2	-2,0	-3,2
ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	81,1	82,6	80,7	75,0	80,6	79,3
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,7	2,0	2,1	2,0	1,8	1,6
Eraikuntza						
Eraikuntzaren koiuntura indizea	2,1	2,9	2,0	7,6	4,6	0,5
Etxebizitza berrietarako bisatuak	-13,4	-13,3	-45,8	-5,7	4,6	103,1
Etxebizitzaren salerosketak	11,6	-1,2	4,8	7,1	1,9	8,4
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,0	-0,3	0,5	1,8	1,6	1,6
Zerbitzuak						
Hegazkinen bidezko bidaiariak	7,6	4,8	7,5	5,2	12,2	5,4
Hoteletan igarotako gaualdiak	8,9	6,9	6,6	1,9	8,1	-0,9
Hoteletako okupazioa	53,0	71,3	47,2	38,8	56,9	70,6
Negozio zifren indizea	4,6	3,8	4,6	5,5	3,4	3,0
Zerbitzuen koiuntura indizea	2,9	1,8	1,3	2,1	1,3	1,7
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,2	1,9	2,1	2,1	2,4	2,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriak aurtengo lehen erdikoa baino joera dinamikoagoa erakutsi zuen eta EAEko ekonomiaren bultzagile gisa jokatzeko duen papera aldarrikatu zuen, beraren balio erantsia %2,7 handituz, aurreko epealdietan baino askoz ere gehiago. Hala manufakturrek nola energiak

aldakuntza tasa nabarmenak lortu zituzten, baina lehen kasuan (%2,5) ez zen iritsi aurreko balioa berdintzera.

Industriaren susperraldia sektorearen ekoizpenean ere hautematen da, hirugarren hiruhilekoan %3,0ko aldakuntza jaso zuelako, hots, aurreko bi epealdietan baino puntu erdi bat gehiago hazi zen. Eustaten estatistika horrek adierazten du energiaren ekoizpena oso nabarmen suspertzen ari dela urtean zehar eta hirugarren hiruhilekoan jarduera horren IPI indizeak %12,3an hobetu zuela aurreko urteko maila. Bitarteko ondasunek ere oso emaitza ona eskuratu zuten erreferentziako epealdian (%6,0). Txanponaren ifrentzua ekipamendurako ondasunen ekoizpenean hauteman da. Ondasun talde horrek oso gehikuntza tasa esanguratsuak lortu zituen 2015ean eta 2016an, baina une hauetan tasa negatibotan murgilduta dago. Azkenik, kontsumoko ondasunen artean, oso bestelakoa da ondasun iraunkorren sendotasuna (%14,0) eta iragankorren ahultasuna (%-3,6).

Industria ekoizpenak gaur egun bizi duen une gozoa luzatu daiteke etorkizun hurbilean, industria giroaren indizeak eskaintzen duen informazioaren arabera. Estatistika hori adierazle aurreratutzat jotzen da eta ez du aldaketa handirik izan aurtengo lehen erdiko datuen aldean. Horrek iradokitzen du 2017ko emaitza azken hamarraldiaren onena izango dela. Bereziki baikorrak dira ekoizpenaren etorkizuneko joeraz jaso dituzten erantzunak, non baikortasun garrantzitsua nabaritu baita. Halaber, eskari zorroari buruzko iritziak onak dira eta saldu gabeko produktuen stocka ez da altuegia oraindik.

Zerbitzuek %3,1 handitu zuten beren balio erantsia hirugarren hiruhilekoan. Zenbaki hori eta urteko lehen erdian jasotakoa oso antzekoak dira. Beraz, 2015ean eta 2016an lortu zen hazkunde sendoko ibilbideari jarraipena eman diote. Bultzada handiena merkataritzak, ostalaritzak eta garraioak osatzen duten atalak eman du berriro (%3,8), aurreko epealdietako bizitasunari atxiki diolako. Administrazio publikoari lotuta dauden jarduerak, berriz, %2,6ra moteldu zuten erritmoa, baina adar horietan ohikoak izaten dira hazkunde aldaketa bizi horiek. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek %3,0ko gehikuntza jaso zuten balio erantsian, aurreko hiruhilekoko datua berdinduz.

Zerbitzuetako balio erantsiaren bultzada egiaztatuta geratu da sektore osoaren bilakaera aztertzen duten koiuntura estatistikak ikusita. Izan ere, INEK zenbatesten duen negozio zifrak %3,0ko gehikuntza jaso zuen hirugarren hiruhilekoan, balio erantsiaren antzeko datua baita. Hala ere, nolabaiteko apaltzea hauteman da aurreko datuekin alderatuta.

Beste aldetik, Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura inkestak adierazten du sektoreak hazkunde motela (%1,7) izan zuela, baina aurreko hiruhilekoko baina lau hamarren handiagoa. Antzeko bultzada hauteman da sektorea osatzen duten bi osagai nagusietan. Izan ere, merkataritza %1,9 hazi zen termino errealetan eta gainontzeko zerbitzuak, berriz, %1,6. Zenbaki berberak, baina tokiz aldatuta, jaso dira aurtengo lehen hiru hiruhilekoen batez bestekoan. Beraz, garbi geratu da sektorearen hazkunde erritmoaren egonkortasuna. Hirugarren hiruhilekoan, ibilgailuen salmenta eta konponketa (%5,2) eta txikizkako merkataritza (%2,7) nabarmendu ziren. Garraioak ere datu esanguratsua eskuratu zuen (%3,9). Beste muturrean, adierazi behar da lanbide jardueren (%-0,9) eta informazio eta komunikazioen adarraren (%0,1) ahultasuna, sektorearen batez bestekoaren nabarmen azpitik kokatzen baita.


BPGaren bizitasunarekin batera enplegu sorrera garrantzitsua iritsi zen. Hirugarren hiruhilekoan enplegua %2,1 hazi zen urte arteko tasan, aurreko emaitza berdinduz. Beraz, beste hiruhileko batez luzatu da lanpostuak %2,0aren inguruan sortzeko ahalmena, 2015ean eta 2016an lortu zen bezala. Horri esker, EAEko ekonomian lanaldi osoko 937.000 lanpostu baino gehiago zeuden guztira. Tamaina horretako kopururik ez zen eskuratu 2011ko erdialdetik. Azken hamabi hilekoetan, ia 20.000 lanpostu garbi sortu dira.

Beste hiruhileko batez, lanpostu berri gehienak zerbitzuetan sortu ziren, guztietatik 15.000 baino gehiago jarduera horretakoak zirelako. Sektorearen urte arteko tasa %2,3 izan zen, aurreko epealdietan bildutakoa baino zertxobait altuagoa baita. Beste aldetik, hala industriak nola eraikuntzak parte hartu zuten enplegua sortzeko prozesu horretan, baina portzentaje txikiagoan eta tasak moteltzeko nolabaiteko joera batean. Zehazkiago adierazita, industriaren enplegua %1,7 hazi zen eta 3.500 lanpostu berri sortu zituen. Eraikuntzak, berriz, %1,5 handitu zuen bere langile kopurua eta 800 lanpostu sortu zituen. Gehikuntza tasa handiena lehen arloak eskuratu zuen (%2,8), baina kontuan hartuta tamaina txikia daukala, tasa horrek 340 lanpostutara mugatzen du bere ekarpena.


Enplegu sorreraren egonkortasun hori 2017ko azken hiruhilekora ere luzatu daiteke, jadanik eskuragarri dagoen informazioari erreparatuta. Hain zuzen ere, Gizarte Segurantzako urriko eta azaroko afiliazioak %2,0aren inguruko balioak jaso zituen bi hileko horien batez bestekoan. Emaitza horrek seinalatzen du enplegu gehien sortzen ari diren jarduerak hezkuntza (%7,3), jarduera artistikoak (%5,1) eta ostalaritza (%3,4) direla. Orobat, lanpostuen egiturari pisu handia duten beste batzuek ere emaitza onak ari dira jasotzen, hala nola osasuna (%3,0) eta jarduera administratiboak (%3,3). Beste muturrean, lanpostuen galera oso garrantzitsua da oraindik finantza eta aseguru jardueretan (%-3,9).

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Barne eta kanpo eskaria

2017ko hirugarren hiruhilekoan, kanpo eskariak bi hamarren kendu zizkion BPGaren gehikuntzari. Hala eta guztiz ere, zenbaki hori txikia da oraindik eta ez dago urrun azken hiru urteetan kanpo saldoak izan duen bilakaeratik. Izan ere, epealdi horretan tamaina txikiko ekarpenak, zeinu batekoak zein bestekoak, gauzatu dira, lehiakortasuna galtzen ari dela adierazten ez dutenak. Are gehiago, EAEko ekonomiak azken bi urteetan beraren merkatu nagusietako batzuekin hazkunderan izan duen diferentzialak pentsarazten zuen barne bultzadaren zati bat galduko zela inportazioen bitartez, aurreko hedaldi batzuetan gertatu zen bezala. Halere, ez da halakorik gertatu.

EAEko ekonomiaren eragile nagusia barne eskaria izan zen berriro eta ez du ematen indarra galtzen ari denik. Izan ere, hirugarren hiruhilekoan agregatu hori %3,1 hazi zen, hots, aurreko epealdian baino lau hamarren gehiago, eta 2015ean (%3,2) eta 2016an (%3,0) jaso zuen batez besteko erritmoa berreskuratu du. Orobat, bigarren hiruhilekoaren datuak ekarri zuen moteltzeko mehatxua baztertuta geratu da. Barne eskariaren susperraldi hori azken kontsumoaren eta kapital eraketa gordinaren hobekuntzan oinarritu da.

Azken kontsumoaren barnean, familiek eginiko gastuak %3,0ko aldakuntza tasari eutsi zion, azken epealdietan gehien errepikatu den zenbakia baita, bilakaeran egonkortasun handiko irudia eskainiz. Kontsumo pribatuaren bultzadaren atzean dauden arrazoiak ez dira aldatu. Lan merkatuaren bizitasuna, inflazio apala, interes tasa historikoki txikiak eta konfiantzaren berreskuratzea, hala ekonomia orokorrean nola norberaren ekonomiarenean, nabarmendu behar dira. Kontsumo pribatuaren egonkortasun hori oso urrun dago kontsumo publikoak jaso dituen gorabehera handietatik. Dena dela, aldagai horrek ezin du aldakuntza handirik jaso, defizit publikoa kontrolatzeko helburuagatik. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan jasotako %1,2aren ondoren, hirugarrenean %2,7 hazi zen.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016		2017		
		III	IV	I	II	III
BPG erreala	3,1	3,0	3,0	2,8	2,9	3,0
Gastua azken kontsumoan	2,9	2,5	3,1	2,9	2,6	2,9
- Familien gastua kontsumoan	3,1	3,0	3,1	3,0	3,0	3,0
- Adminis. gastua kontsumoan	2,3	0,8	3,1	2,6	1,2	2,7
Kapital eraketa gordina	3,1	2,3	2,9	3,0	3,2	3,9
- Ekipamendu ondasunak	5,3	2,6	4,3	4,2	5,4	4,5
- Gainontzeko inbertsioa	1,8	2,1	2,1	2,2	1,9	3,5
Barne eskaria	3,0	2,5	3,0	2,9	2,7	3,1
Esportazioak	1,5	0,8	-0,5	1,5	1,9	3,7
Inportazioak	1,5	0,3	-0,2	1,9	1,8	3,9

Iturria: Eustat.

Kapital eraketa gordinak nabarmen bizkortu zuen hazkunde erritmoa eta hirugarren hiruhilekoan %3,9ko urte artekoa jaso zuen, azken urtebete eta erdian lortu duen daturik gorena. Horrek agerian uzten du inbertsioak ez duela bere goia ukitu, nahiz eta osaera aldatzen ari den, aurreko txostenetan adierazi zen bezala. Izan ere, azken hiru urteetan azpimarratu zen mezua zen inbertsio berria ia osorik ekipamendurako ondasunen atalean pilotzen zela, baina une hauetan oreka handiagoa hautematen da inbertsio horren eta gainontzeko inbertsioaren artean. Zehatz-mehatz adierazita, ekipamendurako ondasunetan eginiko kapital eraketa gordina %4,5 hazi zen hirugarren hiruhilekoan, aurreko datua eta 2016ko batez bestekoa baino ia puntu bat gutxiago. Beste aldetik, gainontzeko inbertsioak, eraikuntzaren bilakaerak erabat baldintzatzen baitu, %3,5eko gehikuntza jaso zuen, 2016an eskuratutako batez bestekoa ia bikoiztuz.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016		2017		
		III	IV	I	II	III
Kontsumoa						
Azalera eta kate handietako salmentak	1,9	1,9	2,1	2,5	2,5	3,6
Txikizkako merkataritza indizea	1,7	2,0	0,1	-0,2	0,6	2,7
Kontsumo ondasunen ekoizpena	0,2	1,1	2,8	2,7	4,2	0,9
Kontsumo ondasunen inportazioa	-0,7	-7,0	-1,8	9,1	-6,0	8,9
Turismoen matrikulazioa	5,3	4,6	2,6	8,3	2,0	5,2
Inbertsioa						
Ekipo ondasunen ekoizpena	8,7	9,0	6,4	0,8	-0,8	-3,4
Ekipo ondasunen inportazioa	12,3	9,9	10,6	11,5	1,5	9,7
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	3,6	0,3	-0,9	7,9	-3,5	11,9
Etxebizitza berrientzako bisatuak	-13,4	-13,3	-45,8	-5,7	4,6	103,1
Lizitazio ofiziala	-18,0	203,5	-30,6	-35,3	130,3	29,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Aduanen, Sustapen Ministerioaren, Seopanen eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eskura dagoen koiunturako informazioak inbertsioaren bi osagaien orekatzea baieztatzen du. Alde batetik, ekipamendurako ondasunen ekoizpena biltzen duten datuek behera egin dute urte osoan zehar. Ekoizpenaren zati handi bat kanpoko merkatuetara bideratzen da, baina beste zatia barnean gelditzen da. Aitzitik, ondasun horien inportazioa EAEko enpresetara bideratzen da eta datu ona lortu zuten hirugarren hiruhilekoan (%9,7), nahiz eta bigarrenen %1,5 baino ez zen hazi. Beraz, urte osoko batez bestekoa nekez iritsiko da 2016an eskuratu zen %12,3 hartara. Beste aldetik, eraikuntzan eginiko inbertsiora lotuago dagoen informazioak, hots, bizitegi berriak eraikitzeke bisatuek eta lizitazio ofizialak, oso emaitza onak eskuratu zituzten azken bi hiruhilekoetan, aurreko epealdietako jaitzieren ondoren. Kontuan hartuta zenbat denbora igarotzen den baimena lortzen denetik lanak egin arte, pentsatzekoa da datozen epealdietan emaitza esanguratsuak lortuko direla inbertsio mota horretan. Azkenik, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak ere gehikuntza tasa garrantzitsua (%11,9) izan zuen hirugarren hiruhilekoan.

Kanpo saldoak BPGaren gehikuntzari egin zion ekarpena zertxobait negatiboa izan zen 2017ko hirugarren hiruhilekoan, bi hamarren ingurukoa, azken urteetan ohikoa izan den portaeratik alden du gabe. Bai esportazioek bai inportazioek azken urteetan galdutako bizitasunaren zati bat berreskuratu zuten eta %3,7 eta %3,9 hazi ziren, hurrenez hurren, urte arteko tasan. Aurreko epealdietan ez bezala, hirugarren hiruhilekoan kanpo merkataritza, hau da, atzerriarekin eta

gainontzeko erkidegoekin eginiko salerosketen batuketa, BPGa baino gehiago hazi zen. Jarrera hori ohikoa izan zen duela urte batzuk, baina krisialdi honetan nazioarteko merkataritza galgatu zen, EAEko enpresei ere kalte eginez. Ingurunekeo ekonomien suspertzeak aurreko paradigmarantz itzultzea ahalbidetu du.

Esportazioen bultzada bereziki nabarmena da atzerrian saldutako ondasunak aztertzen direnean. Eustatek Aduanetako datuekin egiten duen estatistika horren arabera, hirugarren hiruhilekoan atzerrian saldutakoak %12,7ko gehikuntza garrantzitsua jaso zuen, aurreko hiruhilekoaren datuak, urte sasoiaren eraginpean baitzegoen, sortu zituen zalantzak uxatuz. Are gehiago, aurtengo lehen bederatzi hilekoen batuketa 17.710 milioi euroetara iristen da, serie historiko osoan bildu den kopururik gorena delarik. Beraz, oso litekeena da 2017ko esportazioen guztizkoa ere errekorra izatea.

Salmenten balioaren gorakada energiako produktuetan zein besteetan hauteman da. Zehatz-mehatz, erregai mineralek %55,7 handitu zuten beren esportazioen balioa, neurri batean lehengai horrek aurreko urteko epealdi beraren aldean izan zuen garestitzearen ondorioz –Brent motako upela %10 inguru garestitu zen, eurotan neurtuta, 2016ko prezioarekiko-, baina baita ere esportatutako kantitatea %16,7 handiagoa izan zelako, bigarren hiruhilekoaren igoerari jarraipena ematen.

Energiaz bestelako esportazioak %9,6ko gorakada erakutsi zuen, lehen sei hilekoan lortutako emaitza puntu erdi batean gaintuz. Emaitza on hori Araba, Bizkai eta Gipuzkoako enpresek atzerrira bideratzen dituzten talde nagusi guztien bilakaera hedakorraren ondorioa da. Esate baterako, garraio materialak EAEko esportazio guztien laurdena baino gehiago biltzen du eta %15,3ko gehikuntza izan zuen urte arteko tasan. Halaber, makinak eta tresnak zein metal arruntak taldeek %20na biltzen dute esportazioaren guztizkoan eta biek %9,0 inguru hobetu zituzten beren salmentak. Pisu gehien duen hurrengo atala plastikoak eta kautxua da eta %16,3 handitu zuen emaitza. Gainontzeko manufacturek, berriz, %13,8ko tasa eskuratu zuten. Gorakada orokor horretatik aldendu zen salbuespen bakarra produktu kimikoek protagonizatu zuten, beren salmenten balioa %3,9 gutxitu zutelako, aurtengo lehen erdian gehikuntza tasa sendoak jaso eta gero.

Salmenten helburu geografikoaren arabera, herrialde aurreratuen eta garapen bidean daudenen arteko banaketa bere horretan geratu zen, lehenengoek salmenta guztien %82 eta bigarrenek gainontzeko %18 bereganatu zutela. Ekonomia garatuetan lortu zen salmenten gehikuntza %13,4ra iritsi zen, aurreko hiruhilekoetako emaitzak gaintuz. Aitzitik, azalerraten ari diren herrialdeen hazkunde tasa %9,7 izan zen, aurtengo lehen erdia eskuratu zena baino zertxobait txikiagoa baita.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2016	2016			2017		
		III	IV	I	II	III	III
GUZTIRA	-1,6	-5,5	-3,5	13,2	5,5	12,7	5.768.520
ELGE	1,0	-3,2	-3,1	12,0	5,3	13,4	4.708.643
Europar Batasuna	0,7	-3,7	-5,2	12,7	2,2	11,8	3.739.047
Frantzia	4,4	7,0	-4,2	11,3	7,6	14,0	942.363
Alemania	-1,4	-8,9	-6,8	7,1	-5,8	4,8	858.034
Erresuma Batua	-9,4	-17,0	-12,2	21,4	12,3	24,1	372.415
Italia	-9,0	-4,3	-16,6	0,6	-6,3	8,3	253.632
AEB	-10,5	-28,3	-6,8	-5,1	17,4	49,3	490.409
ELGETik kanpokoak	-11,8	-14,1	-4,8	19,5	6,2	9,7	1.059.877

Iturria: Eustat.

AEBetara bidalitako esportazioek oso gorakada esanguratsua izan zuten hirugarren hiruhilekoan (%49,3), neurri handi batean herrialde horretan saldutako erregai mineralen igoeragatik, %76,8 hazi zirelako. EAEko enpresek lurralde horretara bideratzen dituzten produktu guztietatik heren bat baino gehiago erregai mineralak dira dagoeneko. Halere, beste ondasun batzuek ere oso gehikuntza nabarmenak lortu zituzten epealdi horretan. Izan ere, galdaketa manufakturen esportazioak bikoiztu ziren (%106,0) aurreko urteko emaitzaren aldean eta AEBetara esportatutako guztiaren %10,8 dira orain. Orobat, makineriaren atalek ere, guztira, oso tasa onak bildu zituzten (%35,0) eta ibilgailu automobilen salmenta (%191,5) indarra hartzen ari da merkatu estatubatuarrean. Beraz, ekonomia horretara esportatzen diren produktuetan dibertsifikazioa hautematen da, orain arteko produktu mineraletatik landa.

Bigarren hiruhilekoaren geldialdiaren ondoren, hirugarrenean Europar Batasunean saldutakoak indarra hartu zuen eta %11,8 hazi ziren. Eremu ekonomiko horretan, EAEko enpresek bereziki ibilgailu automobilak saltzen dituzte, saldutako guztiaren laurdena baino gehiago direlako. Produktu horien salmenta %13,7 handitu zen. Lurralde horretara esportatzen diren beste atal garrantzitsu batzuk makineria elektronikoa (%2,1), erregai mineralak (%48,3) eta kautxua eta bere manufakturak (%34,5) dira. Aitzitik, galdaketarekin zerikusia duten atalek urte arteko jaitsierak izan zituzten.

EAEko ekonomiaren bezero behinena Alemania izan zen berriro, atzerrian saldutako guztiaren %16,3 hara bideratzen delako. Are gehiago, herrialde horretara esportatutakoa %14,0 hazi zen,

batez bestekoa baino zertxobait gehiago. Ibilgailu automobilen atalean (%13,4) dagoen harreman estuak baldintzatu du emaitza globala, herrialde horrekin egiten diren salerosketa guztien ia erdia produktu horiek direlako. Salmentetan pisu esanguratsua duten gainontzeko taldeek ere aldakuntza positiboak lortu zituzten. Esate baterako, kautxua eta bere manufakturen salmenta %28,6 handitu zen, galdaketa manufakturak %3,3 eta makineria elektronikoa %9,4.

Frantzia Alemaniaren aurkaria da EAEko esportazioen helburu nagusia izateko lehian, baina azken hiruhilekoetan izan duen portaera ez da horren dinamikoa izan. Bigarren hiruhilekoaren jaitsieraren ondoren, hirugarrenean herrialde horretan saldutakoa %4,8 baino ez da gehitu, gainontzeko herrialde nagusietan baino gutxiago. Ibilgailu automobilerik biltzen dute herrialde horretara esportatzen diren EAEko produktuen ia bosten bat eta bilakaera motela ari dira erakusten, jaitsiera txikiekin eta igoera neurritsuekin, hala nola hirugarren hiruhilekoan jasotako %4,8 hori. Beste atal garrantzitsu batzuek urte arteko jaitsierak izan zituzten, esate baterako galdaketak eta makineriak. Pisu gehien dituztenen artean, bakarrik erregai mineralak eskuratu zuten gehikuntza esanguratsu bat (%41,9).

Libera esterlinak euroaren aldean balioa galdu badu ere, EAEko esportazioak Erresuma Batura oso nabarmen handitu ziren (%24,1) aurtengo hirugarren hiruhilekoan, aurreko bi hiruhilekoetan jasotako emaitza onei segida emanez. Herrialde horrekin dauden merkataritza harremanak hiru produktu motatan pilatzen dira: ibilgailu automobilak (%35,5), burdina eta altzairu galdaketa (%38,4) eta makineria (%24,1). Produktuen banaketa antzekoa da Italiari dagokionez, nahiz eta herrialde horretan kautxuak ere nabarmentzeko pisua daukan. Guztira, salmentak %8,3 areagotu ziren eta aurreko hiruhilekoetako emaitzak hobetu zituzten.

Garapen bidean dauden herrialdeetara esportatutakoa %9,7 hazi zen hirugarren hiruhilekoan. Eredu horretako salmenten osieran makineriak pisu handia dauka, hala makina elektrikoek nola elektronikoez, guztizkoaren ia herena biltzen dutelako. Produktu horien salmenta %4,0 baino ez zen hazi. Emaitza hobea izan zuten ibilgailu automobilerik (%19,8) eta burdinbideetakoek (%955,2). Mutur batean Txinan saldutakoaren jaitsiera (-5,5) dago eta bestean Saudi Arabian lortutako bultzada sendoa (%289,5). Lehen kasuan, makinak eta tresna elektrikoek bakarrik izan zuten portaera positiboa (%13,3), baina ez zen nahiko izan gainontzeko makineriaren eta galdaketa manufakturen jaitsierak konpentsatzeko. Aitzitik, Saudi Arabian gorakada garrantzitsua lortu da burdinbideetako ibilgailuetan, eremuko herrialde nagusien artean kokatu duena. Herrialde horren ondoren Brasil dago, %48,5eko gehikuntza jaso baitzuen. Kasu horretan, igoera erregai mineralen ezohiko salmenta batek eragin du, normalean ez baita herrialde horretara produktu hori esportatzen.

Hirugarren hiruhilekoko inportazioek aurtengo lehen erdian jaso zuten tonu onari eutsi zioten eta %22,5 hazi ziren. Gehikuntza horren zati handi bat erregai mineralen erosketari dagokio, lehen sei hilekoan bezala oso gorakada esanguratsua izan zuelako (%58,4). Hala eta guztiz ere, energiarekin zerikusia ez duten produktuek %13,2ko igoera eskuratu zuten, aurtengo lehen erdiko batez bestekoa zertxobait gaindituz. Aldakuntza tasak garrantzitsuak dira erosketen egituran pisu gehien duten produktu taldeetan. Esate baterako, metal arrunten eta beren manufakturen inportazioa %22,3 handitu zen eta ibilgailu automobilena, berriz, %18,3. Makineriak (%8,0) eta produktu kimikoek (%7,7) ere gehikuntza tasa esanguratsuak lortu zituzten epealdi horretan.

Analisia jatorri geografikoaren arabera egiten denean agerian gelditzen da bi eremu ekonomiko handien hazkundea antzekoa izan dela. Izan ere, herrialde garatuen multzoan %23,0 hazi ziren eta garapen bidean dauden taldean, berriz, %21,6. Beraz, urtearen lehen erdian hauteman zen berdintasunak bere horretan jarraitu du. Eremu bakoitzetik inportatzen diren produktuak ezberdinak dira. Garapen bidean dauden herrialdeetatik bereziki erregai mineralak eta bestelako lehengaiak ekartzen dira, herrialde garatuek, portzentaje handiagoan, makineria eta ibilgailuak bidaltzen dituzten bitartean.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2016	2016		2017			
		III	IV	I	II	III	III
GUZTIRA	-8,0	-14,4	0,1	34,9	12,9	22,5	4.498.475
ELGE	-7,7	-18,1	-1,8	42,9	2,6	23,0	3.064.086
Europar Batasuna	-8,1	-16,2	-6,6	36,5	1,1	14,2	2.424.355
Frantzia	9,5	8,5	0,1	13,3	-2,3	11,7	670.323
Alemania	-8,9	-9,0	-8,9	14,4	1,0	14,2	433.310
Erresuma Batua	-51,7	-78,9	-32,0	535,1	-1,3	76,5	197.189
Italia	3,5	4,2	-1,1	18,2	-1,7	7,1	215.603
AEB	-3,9	-30,6	14,1	37,0	-13,0	39,2	93.791
ELGETik kanpokoak	-8,5	-5,6	5,3	18,2	42,4	21,6	1.434.389

Iturria: Eustat.

Hala ere, ekonomia aurreratuen artean ere badaude EAEko enpresei petrolio saltzen direnak ere. Esate baterako, erregai mineralak saltzen dituzten herrialdeen sailkapenean, Mexiko kokatu zen lehen tokian, %61,3ko gehikuntza bati esker. Ondoren Norvegia zetorren, EAEn saldu zuena

bost aldiz handitu zuelako. Erresuma Batua ere lehenengo tokietan agertu zen. Petrolio hornitzaileen sailkapen horretan, Afrikako herrialde batzuk agertu dira, beraiekin orain arte inolako merkataritza harremanik eduki gabeak, hala nola Angola, Kongo, Libia eta Boli Kosta. Haiei gehitu behar zaizkie Nigeria eta Irak. Herrialde horiek Errusia ordezkatu dute, petrolio hornitzaile nagusia izan dena, baina hirugarren hiruhilekoan ezer saldu ez duena.

Energiako produktuak alde batera utzita, EAEko inportazioen jatorri nagusia Alemania izan zen, petrolio ez diren inportatutako ondasun guztien bostena handik ekarri zelako. Herrialde horretan erositako guztiaren balioa %11,7 handitu zen. Azpimarratzekoa da ibilgailu automobilen eta makineriaren erosketak, biek gehikuntza nabarmenak izan zituztelako epealdi horretan. Frantzia da bigarren hornitzaile nagusia. Handik inportatutakoa %14,2 hazi zen eta burdina eta altzairu galdaketaren produktuen inportazioak, handik ekartzen den atal nagusia baita, bultzada esanguratsua (%31,8) ezagutu zuen.

Aipatua izanenez, garapen bidean dauden herrialdeetatik batez ere erregai mineralak inportatzen dira, guztizkoaren ia erdia biltzen baitute. Gainontzeko produktuetatik, pisu garrantzitsua dute burdina eta altzairu galdaketak, %40,1 hazi baitzen, eta makineria mota guztiek, %8,5eko gehikuntzarekin. Ekonomia haietatik inportatzen diren makinaren ehuneko handi bat Txinatik ekartzen da. Hain zuzen ere, herrialde horretatik inportatzen den guztiaren ia %40 makineria da, mota batekoa zein bestekoa, eta bilakaera motela izan zuen, %10,0 baino gutxiago hazi zelako. Aitzitik, ibilgailu automobilak indarra hartzen ari dira herrialde hartatik ekarritako inportazioen egituraren barnean eta %44,3ko hazkundea eskuratu zuten hirugarren hiruhilekoan.

Hirugarren hiruhilekoaren merkataritza saldo osoa 1.270 milioi eurokoa izan zen, urteko lehen erdian lortutakoaren antzekoa. Berrito ere, desberdindu behar da energiaren bestelako produktuekin lortu zen superabita eta energetikoetan jaso zen defizita. Lehen kasuan, saldoa positiboa izan zen eta 1.929 milioi euroetara iritsi zen, baina energiaren inportazioak 659 milioi eurotan gainditu zuen beraren esportazioa. BPGaren terminoetan, saldo osoa %6,9 izan zen eta energiaren bestelakoa, berriz, %10,5. Superabit hori herrialde garatuekin egiten diren merkataritza salerosketetan lortzen da eta garapen bidean dauden herrialdeekin dauden harremanek saldo negatiboa uzten dute. Herrialdeka aztertuta, Frantziarekin (425 milioi euro) eta AEBekin (397 milioi euro) lortu zen saldoa azpimarratu behar da. Aitzitik, Txinarekin defizit handia egon zen (172 milioi euro).

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioak neurtzen dituzten adierazle guztiek baieztatzen dute oraindik ez dagoela barne eskariaren sendotasuna ikusita espero zitekeen presioa eta berriro balio neurritsuak jaso zituzten. Esate baterako, BPGaren deflatoreak %1,0ko urte arteko aldakuntza tasa izan zuen hirugarren hiruhilekoan, hots aurreko epealdiko datua baino bi hamarren gehiago bakarrik. Tasa hori bat dator kontsumo pribatuaren deflatoreak jaso zuen balioarekin. Azken adierazle horrek bizkortze arina izan du, baina oraindik maila apalean dago. Beste aldetik, kontsumo publikoaren deflatoreak, aurreko epealdietako mugimendu gorabeheratsuen ondoren, aurreko balioa berdindu zuen (%0,2) eta kapital eraketa gordinaren deflatorea %0,8 handitu zen. Gehikuntza garrantzitsuak izan zituzten deflatore bakarrak esportazioenak (%2,5) eta inportazioenak (%2,2) izan ziren, kanpo merkataritzan gauzatzen ari den susperraldia agerian utziz.

Analisia KPI indizean fokatuta, azken hilekoetako ezaugarriak adierazgarriena kontsumoko prezioak erakusten ari diren egonkortasun handiagoa da. Izan ere, aurtengo hastapenetan 2012ko amaieratik inoiz jaso diren baliorik gorenak bildu ziren. Hala eta guztiz ere, apiriletik aurrera moteltzeko joera bizi zen eta indize orokorraren urte arteko aldakuntza tasa %1,5era jaitsi zen ekainean. Data horretatik aurrera adierazle horren aldakuntzak ez dira inoiz %2,0tik gorakoak izan. Argitaratu den azken datuak, alegia, azarokoak, %1,6an kokatu zuen urte arteko tasa, Europako Banku Zentralaren helburuaren azpian oraindik.

KPIaren egonkortasun hori deigarriagoa da kontuan hartzen bada petrolioaren salneurriak nabarmen gora egin duela azken hilekoetan. Zehatz-mehatz, Brent motako upela %40 baino gehiago garestitu zen azaroan eta 63 dolarren gainetik ordaindu zen, 2015eko erdialdetik izan duen preziorik altuena baita. Garestitze horren atzean eskaintzaren eta eskariaren aldetiko faktoreak daude. Lehenengoan artean, petrolio gordinaren ekoizpena murrizteko LPEEko herrialdeen eta beste petrolio ekoizle batzuen arteko akordioa 2018ra luzatzeko erabakia azpimarratu behar da. Orobat, AEBetako petrolio izakinen jaitsierak lagundu du prezioa igotzen, nahiz eta ekoizle berrien sarrerak neurri batean konpentsatu zuen goranzko joera. Eskariaren aldetik, Txinako ekonomiaren bilakaera erabakigarria izan zen berriro.

Dena dela, lehengai horren merkatuan oraindik ziurgabetasun handia dago, batez ere eskaintzaren atalean. Petrolioaren eperako merkatuaren kurbak prezioa igoko dela iragartzen du. Beraz, inflazio globala leunki igo daiteke, gaur egun moteldu bada ere. Are gehiago, azpiko inflazioa urratsez urrats igoko dela aurreikusten da, munduko jarduera gehiago haziko delako eta herrialde nagusietako lan merkatuetan hobekuntzak lortu direlako.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2017			Ekarpena
			II	III	Azaroa	
Inflazio osoa (%100)	-0,3	0,0	2,0	1,8	1,6	1,6
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,7	0,9	1,1	1,3	0,8	0,7
- Elikagai landuak (%14,3)	1,1	0,9	-0,3	0,3	0,9	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,3	0,8	0,5	0,3	-0,5	-0,1
- Zerbitzuak (%43,1)	0,8	1,1	1,9	2,0	1,6	0,7
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,5	-4,2	6,5	4,1	5,3	0,9
- Landu gabeko elikagaiak (%7,8)	1,9	2,6	3,8	1,8	4,2	0,3
- Energia (%10,4)	-8,4	-8,2	8,1	5,3	5,9	0,6

Iturria: INE.

EAERI dagokionez, epe laburrean inflazioaren gune egonkorak oraindik ez du goranzko joera hartzeko inolako zantzurik, zeren eta barnean sortzen diren kostuen presioak, hala nola lan merkatutik iristen direnak, ahulak baitira oraindik. Izan ere, azken hilekoetan, azpiko inflazioa moteldu egin da eta uztailean jasotako %1,4 hartatik azaroko %0,8ra igaro da. Horri esker, 2015ean eta 2016an, batez beste, izan zituen balioetara itzuli da. Bloke horretan, landutako elikagaiak %0,9 garestitu ziren eta bai zerbitzuek (%1,6) bai industriako ondasunek (%-0,5) urte arteko tasak murriztu zituzten.

Hondar inflazioaren osagaiek bilakaera kontrajarriak aurkeztu zituzten. Izan ere, landu gabeko elikagaien salneurriek %4,2ra bizkortu zuten urte arteko tasa azaroan eta energiak %5,0aren inguruan kokatu zuen bere erritmoa. Beraz, hondar inflazioa %5,3 hazi zen hileko horretan, agerian utziz KPI orokorra are txikiagoa izango zela osagai gorabeheratsu horiek gorantz bultzatuko ez balute.

Aurreko epealdietan bezala, petrolioaren salneurriaren bilakaerak eragin nabarmena izan zuen kontsumoko prezioen norabidean eta lehengai horrekin zerikusi handiena duten taldeek balio altuak jaso zituzten. Esate baterako, garraioak %3,7ko tasa izan zuen, nahiz eta beheranzko joera erakutsi. Orobat, etxebizitzarako zerbitzuek (%2,3) indize orokorraren gainetik dagoen tasa bat jaso zuen, baina apaltzen ari da iaz argindarraren prezioek izan zuten gorakada biziaren ondoren, 2017ko urtarrilean goia jo zuena.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016		2017			Azaroa
			IV	I	II	III		
Indize orokorra	-0,3	0,0	1,0	2,7	2,0	1,8	1,6	
Janariak eta alkohol gabeko edariak	1,4	1,6	0,5	1,3	1,0	0,7	2,1	
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,9	0,4	0,5	1,6	1,7	1,6	1,9	
Jantziak eta oinetakoak	0,4	0,8	0,9	0,9	0,8	0,8	0,3	
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-1,7	-4,1	-0,3	5,7	4,5	2,7	2,3	
Etxeko hornidura	0,0	0,5	0,8	0,4	-0,3	-0,6	-0,7	
Medikuntza	0,1	1,0	0,7	1,4	1,5	1,1	0,4	
Garraioa	-4,1	-1,8	2,6	7,4	3,7	3,2	3,7	
Komunikazioak	-1,7	2,6	3,2	2,0	1,9	1,0	0,7	
Aisia eta kultura	-0,2	-1,0	-0,8	1,4	2,9	2,0	1,7	
Irakaskuntza	2,2	0,6	1,0	1,5	1,6	1,6	1,6	
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,3	1,0	1,2	1,1	1,9	2,4	1,7	
Besteak	1,7	1,7	1,9	1,4	1,0	0,4	-0,2	

Iturria: INE.

Industria alorreko prezioek ere moteltzeko joera erakutsi zuten urtean zehar, apirilean jasotako %4,6 hartatik urriko %2,8ra, argitaratu den azken hilekoa baita. Ondasun taldeka sailkatuta, agerian geratzen da lehengaiei lotuago daudenak direla prezioak gehien garestitu direnak. Izan ere, bitarteko ondasunen urte arteko tasa hileko horretan %4,0 izan zen eta energia, berriz, %3,8 garestitu zen. Oso bestelakoa izan zen kontsumoko ondasunek (%0,8) eta ekipamenduko ondasunek (%1,7) erakutsi zituzten igoera apalak.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,3	0,7	0,6	1,0	1,5
- Urtean zehar sinatutakoak	1,0	0,5	0,8	1,2	1,5
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,3	0,8	0,6	1,0	1,6
- Enpresako hitzarmenak	1,2	0,6	0,6	1,2	1,5

(*) 2017ko urrira arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

2017an indarrean dauden hitzarmen kolektiboen informazioari dagokionez, adierazi behar da epealdi horretarako adostu den batez besteko soldata gehikuntza %1,5 dela, hots, 2016an adostu zena baino puntu erdi bat gehiago. Oraindik ere ez da alde esanguratsurik hautematen sektore mailan eta enpresetan onartutako hitzarmenen artean. Orobat, urte anitzeko hitzarmenetan eta urtean zehar adostutakoetan igoera berdintsua da.

Arlo publikoa

Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien aurrekontu bateratuaren exekututzea aztertuta, 2017ko hirugarren hiruhilekoaren amaieran 1.480 milioi euroko superabit nabarmena (BPGaren %3) jaso zen. Zenbaki horrek 2016ko epealdi berean lortutakoa bikoiztu baino gehiago egiten du. Superabitaren igoeraren oinarrian diru sarrera arrunten gorakada dago (%12,7), gastu arruntena (%5,2) baino gehiago hazi zirelako.

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN AURREKONTUKO ERAGIKETA BATERATUAK (2017ko urtarrila-iraila)

Mila euro

	2016	2017	% aldakuntza
1. SARRERA ARRUNTAK	10.375.948	11.698.692	12,7
2. GASTU ARRUNTAK	9.230.117	9.709.989	5,2
Langileen gastuak	1.693.154	1.727.574	2,0
Funtzionamenduko gastuak	2.699.492	2.775.585	2,8
Finantza gastuak	180.305	159.054	-11,8
Transferentzia arruntak	4.657.165	5.047.775	8,4
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	1.145.831	1.988.703	73,6
4. KAPITALEKO SARRERAK	126.689	54.856	-56,7
5. KAPITALEKO GASTUAK	569.497	563.096	-1,1
Inbertsio errealak	208.686	178.214	-14,6
Kapitaleko transferentziak	360.811	384.882	6,7
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	703.023	1.480.463	110,6

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila.

Zergen bidezko ditu sarreren portaera onak bide eman zuen diru sarrera arruntek kopuru esanguratsuak lortzeko. Are gehiago, aurreikusten den bezala, ekonomiaren egoera hobetzen bada eta interesen ordainketa gutxitzen bada, zor ratioa BPGarekiko berriro murriztuko da. Ratio hori oraindik %15aren inguruan kokatzen da, krisiaren aurreko urteetan zegoena baino askoz ere altuagoa delarik. Beste aldetik, kapitaleko diru sarrerek jaitsiera garrantzitsua izan zuten (%-56,7), baina beraien kopurua nahiko txikia da.

Gastuen atalean, finantza gastuen jaitsieraz gain (%-11,8), aurreko ekitaldiaren epealdi beraren aldean beherakadak aurkeztu zituen beste kapitulua inbertsio errealena izan zen (%-14,6). Aitzitik, gainontzeko atalek gehikuntza tasa positiboak lortu zituzten berriro, nahiz eta tamaina txikikoak izan ziren. Esate baterako, pertsonaleko gastuak %2,0 handitu ziren, oraindik ordaindu gabe zegoen 2012ko aparteko ordainketaren zati bat une horretan pagatu zelako. Beste aldetik, funtzionamenduko gastuak %2,8 areagotu ziren eta transferentzia arruntak, berriz, %8,4.

Zerga bidezko diru bilketaren bilakaerari dagokionez, 2017ko lehen hamar hilekoetan baieztatuta geratu da azken hilekoetako joera positiboa eta guztira 11.651,6 milioi euro bildu ziren, aurreko urteko epealdi berean eskuratu ziren 10.534,4 milioi euroen aldean. Beraz, urte arteko gehikuntza tasa %10,6ra iritsi zen, 2016ko urria arte kontabilizatu zen %3,1 hura baino askoz ere gorago.

Aipatu berri den diru bilketaren hazkundea zuzeneko zergei esker lortu zen nagusiki, %10,8ko gehikuntza izan zuelako. Hazkunde horretan zerga mota guztiek ekarpenak egin zituzten, baina berriro ere PFEZ zerga nabarmendu behar da, diru bilketa %5,7 handitu zuelako, bereziki enpleguaren hazkundera oinarrituta. Batez ere lanaren etekinen gaineko atxikipenetan nabaritu zen, zerga horren atal nagusia baita, %3,4 areagotu zelako. Zergaren gainontzeko atalek ere gehikuntza esanguratsuak izan zituzten. Esate baterako, profesionalen eta enpresarien zatikako ordainketak %6,6 gehitu ziren eta kapital higigarriaren gaineko atxikipenak, berriz, %6,5 handitu ziren.

Diru bilketan PFEZ zerga baino pisu txikiagoa duen arren, sozietateen gaineko zergak oso gorakada nabarmena (%30,7) izan zuen, 2016ko kanpainaren itzulketen kopurua txikia izan zelako eta aurtengo kanpainarena (uztailean eta abuztuan egiten dena), ordea, askoz ere handiagoa izaten ari delako. Beraz, kuota diferentziala %19,2 handitu da.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2017ko urtarriletik urrira)

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2016	2017	% Aurrek.	% Ald. 17/16
PFEZ	3.867.591	4.089.018	81,5	5,7
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	3.871.836	4.003.893	84,2	3,4
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	135.071	143.870	92,1	6,5
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	67.621	68.823	85,7	1,8
- Ondare irabazien atxikipenak	24.592	35.142	109,1	42,9
- Loteria eta apustu jakin batzuen g/zerga bereziak	14.602	23.833	70,7	63,2
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	127.645	136.038	85,7	6,6
- Kuota diferentzial garbia	-373.778	-322.580	164,2	13,7
Sozietateen gaineko zerga	907.548	1.186.022	120,3	30,7
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	135.071	143.870	92,1	6,5
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	67.621	68.823	85,7	1,8
- Ondare irabazien atxikipenak	24.592	35.142	109,1	42,9
- Kuota diferentzial garbia	680.263	938.188	140,6	37,9
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	-8.335	26.063	-	-
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	89.323	98.484	79,8	10,3
Ondarearen gaineko zerga	158.993	161.670	93,1	1,7
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	24.323	24.823	95,2	2,1
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	22.765	23.572	65,8	3,5
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	5.062.209	5.609.653	88,9	10,8
BEZaren bertoko kudeaketa	3.032.457	3.083.567	79,0	1,7
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	95.221	117.256	95,3	23,1
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	32.231	30.710	64,2	-4,7
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	14.718	17.406	94,9	18,3
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.339.006	1.377.056	78,9	2,8
Aseguru sarien gaineko zerga	60.329	61.531	79,1	2,0
Joko jardueren gaineko zergak	4.117	5.053	101,2	22,7
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	2.449	4.035	100,5	64,8
Iraungitako zergak	-7.409	-7.067	54,5	4,6
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	4.573.118	4.689.545	79,3	2,5
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	87.383	84.480	71,5	-3,3
BERTON KUDEATUTAKO Z/ ITUNDUAK	9.722.710	10.383.678	84,1	10,4
BEZaren doikuntza	1.019.148	1.483.593	104,9	45,6
Zerga berezian doikuntza	-207.456	-215.661	84,0	-4,0
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	10.534.402	11.651.610	86,3	10,6

Iturria: Foru Aldundiak.

Analisia zeharkako zergetan fokatzen denean, seinalatu behar da beraren bilakaera ere ona izan zela (%2,5), baina hazkunde txikiago bat lortuta. Izan ere, bertan kudeatzen den BEZa %1,7 bakarrik gehitu zen, nahiz eta Estatuarekin egiten den doikuntza %45,6 handitu zen. Beraz, BEZaren bi osagai horiek batuta %12,7ko hazkundera ateratzen da, oso esanguratsutzat jo behar den kopurua baita.

Azkenik, zerga berezien diru bilketa %2,8 gehitu zen, hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren aldeko bilakaerari esker (%5,4), zeren eta gainontzeko zergek balio negatiboak aurkeztu zituztelako. Hidrokarburoen diru bilketa hazi bazen ere, gasolinen eta automobilentzako gasolioaren kontsumoak moteltzeko joera erakutsi zuen, argindarra sortzeko gas naturalaren erabilera areagotuz konpentsatu ahal izan zena.

Arlo finantzarioa

Aurtengo azken hilekoetan, nazioarteko finantza merkatuek aurrera egin zuten konfiantzarekin. Ekonomiaren eszenategi baikorra da eta horrela jarraituko duelako igurikimenak zein inflazioaren susperraldiak aukera eman zieten finantza merkatuei tonu positiboari eusteko.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2015	2016	2017						
			Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abe(*)
Banku Zentralen interes tasak (%)									
Europako Banku Zentrala	0,05	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erreserba Federala	0,50	0,75	1,25	1,25	1,25	1,25	1,25	1,25	1,50
Japoniako Bankua	0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,50	0,25	0,25	0,25	0,25	0,25	0,25	0,50	0,50
Txinako Bankua	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35
Brasilgo Banku Zentrala	14,25	13,75	10,25	9,25	9,25	8,25	7,50	7,50	7,50
Alemaniako 10 urteko zor publikoarekiko aldea (oinarri puntuak)									
Espainia	117	119	107	95	108	116	110	109	112
AEB	164	224	183	175	177	187	202	202	208
Portugal	191	357	256	233	247	191	170	152	153
Erresuma Batua	133	103	79	69	67	91	97	95	90

Iturria: Europako Banku Zentrala eta Espainiako Bankua.

(*) Abenduaren 14 arteko datuak.

Egonkortasun horrek eta bilakaera onak banku zentral nagusiei bide eman zieten interes tasak bere horretan uzteko, salbuespenak Ingalaterrako Bankua eta Erreserba Federala (Fed) izan zirela. Hain zuzen ere, Ingalaterrako Bankuak azaroan puntu laurden batean igo zuen esku hartzeko tasa, %0,5era, inflazioa galgatzeko asmoz. Neurri hori azken jaitsiera erabaki zenetik (2016ko abuztuan) hamalau hilekora iritsi da. Data hartan, moneta erakundeak interes tasak jaitsi zituen britainiarrek Brexitari emandako botoari erantzuteko. Fed-ek, berriz, abendua arte itxaron zuen interes tasak finantza krisia hasi zenetik bosgarren aldiz igotzeko. Igoera hori puntu laurden batekoa izan zen eta interes tasak %1,25aren eta %1,5aren artean kokatu zituen. Banku zentralak erakutsi zuten egonkortasunak on egin zien zor subiranoko merkatuei eta bilakaera onari eutsi zioten. Halaber, arrisku sariek maila apaletan jarraitu zuten. Espainiari dagokionez, Kataluniako erreferendum independentistak ziurgabetasuna eragin zuen arren, diferentzialak ez zuen okerrera egin.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2015	2016	2017					
			Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,110	1,107	1,123	1,151	1,181	1,191	1,176	1,174
Yena/euro	134,3	120,3	124,6	129,5	129,7	131,9	132,8	132,4
Libera esterlina/euro	0,726	0,819	0,877	0,886	0,911	0,895	0,891	0,888
Yena/dolarra	121,0	108,8	110,9	112,9	109,9	110,7	112,9	112,8
€ efektibo nominala (%)	91,7	94,4	96,3	97,6	99,0	99,0	98,6	98,5
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	-7,2	-2,0	11,7	12,3	10,1	11,0	12,5	9,2
Eurostoxx-50	3,8	0,7	4,6	4,8	4,0	9,2	11,7	8,5
Dow Jones	-2,2	13,4	8,0	10,8	11,1	13,4	18,3	22,8
Nikkei 225	9,1	0,4	4,8	4,2	2,8	6,5	15,2	18,9

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilearen azken egunera arte.
Iturria: Europako Banku Zentrala eta Espainiako Bankua.

Dibisen merkatuetan, euroaren balioak, termino efektibo nominaletan, ia ez zuen ezer aldatu urteko azken hilekoetan zehar. Hala eta guztiz ere, irailean kotizaziorik gorenak izan ondoren, euroak balioaren %1,5 galdu zuen dolar estatubatuarraren aldean eta %0,8, berriz, libera esterlinaren aldean, bi herrialde horietako moneta politikaren etorkizuneko norabideaz merkatuek dituzten igurikimenei ondorioz, bietarako laster interes tasak igoko direla aurreikusten dutelako. Hala ere, balio galera hori konpentsatuta geratu zen, neurri handi batean, kontrako norabidea zuten beste batzuekin. Izan ere, euroak balioa irabazi zuen



gainontzeko diru nagusien aldean, besteak beste yen japoniarraren aldean (%0,3) eta Suitzako frankoaren aldean (%1,5).

Arriskutik aldentzeko joera ez zen horren estua, datu makroekonomikoak espero zirenak baino hobek izan ziren Atlantikoaren bi aldeetan eta finantzaziorako baldintzak egokitzailleak ziren. Hiru arrazoi horiek osatzen zuten testuinguruan, burtsaren indizeek portaera ona izan zuten. Izan ere, European irabazi garrantzitsuak lortu ziren eta AEBetan burtsak maximo historikoei eutsi zien. Azaleratzen ari diren merkatuetako eragiketa aretoek ere gora egin zuten, ekonomiaren egoerak sortzen zuen konfiantzak eta sendotasunak lagunduta.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Batez besteko zenbatekoa (ezkerrean) hipoteka kopurua (eskuinean). Mila

Euriborra. 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

12 hilabetera kalkulatzen den euriborrak eremu negatiboan jarraitu zuen eta oraindik beheranzko joera arina erakusten duen arren, ia ez da ezer aldatu abuztutik (%-0,16tik azaroko %-0,19ra jaitsi da). Berrito ere, arrisku sarien eta interes tasen egonkortasun ia erabatekoak azaltzen du ibilbide hori. Izan ere, interes tasa txikiek eta kreditu erakundeek finantzaziorako ematen zituzten baldintza egokiek etxebizitza gehiago saltzea ahalbidetu zuten, 2017ko hirugarren hiruhilekoan %16,5 hazi baitzen. Zehatz-mehatz adierazita, 2016ko epealdi berean baino 561 hipoteka gehiago sinatu ziren eta beraien balioa %13,8 handiagoa izan zen. Hala ere, etxebizitzetarako hipoteketan nolabaiteko moteltzea hautematen da, zeren eta urteko lehen hiruhilekoan 4.700 hipoteka sinatu ziren bitartean, hirugarren hiruhilekoan 4.000 baino gutxiago izanpetu baitziren.

EBZk eskaini duen likideziaz finantzaziorako baldintzak hobetu zituen arren, lan merkatuak hobera egin zuen arren eta enpresei zein familiei bideratutako maileguak onartzeko orduan erabiltzen diren irizpideak laxatu baziren ere, kredituen bilakaerak 2016ko azken laurdenean hasi zuen beheranzko joerari jarraipena eman zion eta 2017ko hirugarren hiruhilekoan areagotu zen, %3,5 jaitsi arte, hala kreditu publikoak nola pribatuak gutxitu zirelako. Badirudi arlo pribatuak oso begi bistan daukela krisian zehar bizi zuen egoera zaila, non zorpetze maila BPGaren %123 izatera iritsi baitzen, eta ez dagoela prest maila altu horietara itzultzeko. Hain zuzen ere, azken datuen arabera, EAEko familien gaur eguneko zorpetze maila 2008an jaso zen maximoaren %25,4 beherago dago.

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2016	2016		2017			Aldea 2008-IV eta 2017-III artean	Aldea 2008-IV eta 2017-III artean	
		III	IV	I	II	III		III	Mila €
Kredituak	2,2	4,5	2,2	1,4	1,1	-3,5	70.817,8	-16.601,9	-19,0
Arlo publikoa	5,4	3,1	5,4	-3,1	-0,9	-6,9	7.131,2	5.102,8	251,6
Arlo pribatua	1,8	4,6	1,8	2,0	1,3	-3,1	63.686,6	-21.704,7	-25,4
Gordailuak	1,9	3,3	1,9	3,8	2,8	2,0	77.503,1	1.159,5	1,5
Arlo publikoa	-0,2	-5,1	-0,2	1,7	29,7	28,0	3.517,3	-2.215,9	-38,7
Arlo pribatua	2,0	3,6	2,0	3,9	1,8	1,0	73.985,8	3.375,5	4,8
Agerikoak	15,0	17,1	15,4	19,9	19,3	17,0	55.028,6	28.041,1	103,9
Eperakoak	-16,6	-14,1	-16,6	-19,8	-27,9	-27,6	18.957,2	-24.665,6	-56,5

Iturria: Espainiako Bankua.

Beste hiruhileko batez, gordailuen errentagarritasuna, hala eperakoena (%0,10 urrian) nola agerikoena (%0,04 hileko berean) maila minimoetan egon ziren. Beraz, errentagarritasunari begiratuta produktu horietan inbertitzea ez da batere erakargarria. Hala ere, badirudi familiak eta enpresak oraindik ez direla guztiz fidatzen errenta aldakorraz inbertitzeko orduan. Halere, interes tasak agian igoko direnez, ez da komenigarria epe ertaineko edo luzeko errenta finkoan inbertitzea. Beraz, arlo pribatuak gordailuak aukeratu zituen eta, haiekin batera, likideziaz, etorkizunean gerta daitezkeen eszenategi zailen aurrean bermea edukitzeko. Hain zuzen ere, gordailu pribatuak %1,0 hazi ziren, ageriko eta konturako gordailuek bultzatuta, %17,0 areagotu zirelako. Izan ere, 2015eko hasieratik beren hazkundea %11,0tik gorakoa izan da hiruhileko guztietan eta oraingo saldoa 2008ko amaierakoa baino %103,9 handiagoa da.

Aurreikuspenak

Epe laburrean, nazioarteko erakunde nagusiek prestatu dituzten hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenek aldeko eszenategi orokorra islatzen dute ekonomia eremu guztietarako. Baikortasunaren oinarriak, batez ere, hainbat politika makroekonomikoren ezartzeak ekarri duen bultzada, lan merkatuan bizi den hobekuntza sendoa, inbertsioaren hazkundera eta nazioarteko merkataritzaren bizitasuna dira. Consensus Forecasts-ek munduko BPGaren hazkundera %3,1ean kokatu du 2017rako eta 2018rako. Halaber, aurreikuspen horiek gorantz zuzendu dituzte aurreko hilekoetan eskaini zituztenak. Ekonomiaren panoraman zegoen ziurgabetasuna gutxitu da eta horrek eragilean konfiantza areagotu du. Hala eta guztiz ere, datozen urteetarako aurreikusi den bilakaera erritmoa neurritsua da analisigileen ustez, aurreko krisietatik irteteko susperraldiekin alderatzen denean.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018
Munduko ekonomia	2,5	3,1	3,1	2,5	3,2	3,4
AEB	1,5	2,2	2,5	1,3	2,1	2,1
Kanada	1,5	3,0	2,1	1,4	1,6	1,8
Japonia	1,0	1,6	1,3	-0,1	0,4	0,7
Eurogunea	1,8	2,2	1,9	0,2	1,5	1,3
Europar Batasuna	1,9	2,2	1,9	0,3	1,7	1,7
Alemania	1,9	2,0	2,0	0,5	1,7	1,6
Espainia	3,2	3,1	2,5	-0,2	1,9	1,3
Frantzia	1,1	1,7	1,7	0,2	1,0	1,2
Herbehereak	2,2	3,2	2,3	0,3	1,4	1,5
Italia	0,9	1,5	1,2	-0,1	1,3	1,1
Erresuma Batua	1,8	1,5	1,4	0,7	2,7	2,6
Asia eta Ozeano Barea	4,7	4,9	4,8	1,7	1,7	2,1
Ekialdeko Europa	1,8	3,3	2,9	4,7	5,1	4,8
Amerika Latinoa	-0,6	1,7	2,6	13,6	15,9	18,4

Iturria: Consensus Forecasts (2017ko azaroa).

2017an eta 2018an, munduko ekonomiaren hazkundera azken zazpi urteetako handiena izango da eta gorakada esanguratsuak biziko dira bai ekonomia aurreratuetan bai garapen bidean dauden ekonomietan. Ekonomia aurreratuetan, jardueraren hazkundera politika

makroekonomiko egokitzailaetan oinarrituko da, hala moneta alorrekoan nola zerga eremukoan, baina baita enplegu sorrera etengabea eta eskaria lagunduko duten finantzaziorako baldintza egokietan ere. Azaleratzen ari diren ekonomietan, txanponaren aurkia Indiaren, Brasilen eta Errusiaren bilakaera hobea izango da, inbertsioaren hazkundeari eta moneta politika egokitzailaiei esker. Beste aldetik, txanponaren ifrentzua Txinako ekonomiarako aurreikusten den moteltzea izango da.

Nazioarteko panorama ekonomikoan, hazkunde aurreikuspenetarako dauden beheranzko arriskuak nabarmen gutxitu dira. Hala eta guztiz ere, taula makroekonomikoaren gainetik egon badaude munduko ekonomiaren aurreikuspena galgatu dezaketen mehatxu batzuk. Beraien artean, azpimarratu behar dira txinatar ekonomiaren moteltze biziagoa, estatubatuar ekonomiak politika ekonomikoei eta merkataritza alorrekoei emango dien erantzuna eta, orobat, burbuila finantzarioak egotea, esate baterako aktibo finantzarioen gainbalioa eta burtsaren balizko jaitsiera bat.

Ingurune hurbilago batean eta Consensus Forecasts-en aurreikuspenen arabera, Euroguneko ekonomiaren hazkundera espero zena baino handiagoa izango da eta %2,2an kokatuko da 2017an eta %1,9an, berriz, 2018an. Tasa horiek ere goranzko zuzenketa bat ekarri diote aurreko hilekoetan eginiko igurikimenei. Susperraldiaren bizkortzea orokorra izango da eta estatu kide guztietara hedatuko da eta erritmo iraunkorrean gauzatuko da. Bizitasun horren atzean, ekonomia aurreratuen bilakaerari komunak zaizkion oinarriak daude: moneta politika egokitzailak, ekonomia eragileek konfiantza berreskuratu izana, munduko merkataritzaren hobekuntza eta ziurgabetasunaren jaitsiera. Europako moneta batasuneko herrialdeei eragin diezaieketen arriskuak munduko ekonomia baldintzatu dezaketen horiek berak dira, baina haiei gehitu behar zaizkie Brexitaren negoziazioek ekar ditzaketen eraginak ere. Aurreko faktore guztiek beherantz eraman ditzakete etorkizunean gaur egun aurkeztu diren ekonomia hazkunderaren zenbakiak.

Espainiari dagokionez, Consensus Forecasts-ek zenbatetsi du aldakuntza tasa %3,1 izango dela 2017an eta hazkundera %2,5era motelduko dela 2018an. Ekonomia analisigile batzuek hazkunde tasa ezberdinak iragartzen dituzte 2018rako; esate baterako, Funcasen paneleko muturreko balioak %2,4 eta %3,0 dira, baina bat datoz guztiak espainiar ekonomia urte horretan motelduko dela iragartzeko orduan. Hazkunderaren moteltzea barne eskariaren apaltzeak eta kanpo saldoaren ekarpen txikiagoak eragingo dute, azken hori truke tasa horren aldekoa izango ez delako. 2018rako batez besteko aurreikuspena zertxobait jaitsi da Kataluniako krisi politikoaren eraginaren ondorioz ere. Beste aldetik, elementu exogeno hori aurreikuspenetan sartu ez duten analisigileek uste dute goizegi dela ondorioak kalkulatzeko eta egoera nola bilakatzen den ikusi arte itxarotea nahiago izan dute.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2017ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017		2018				2018
	IV	2017	I	II	III	IV	
BPG	3,1	3,1	2,7	2,6	2,5	2,2	2,5
Kontsumo pribatua	2,3	2,4	2,3	2,2	2,1	1,9	2,1
Kontsumo publikoa	1,9	1,2	1,6	1,5	1,2	1,2	1,4
Kap. finkoaren eraketa gordina	4,4	4,1	3,5	4,0	4,0	3,5	3,7
- Inbertsioa ekipamenduan	4,5	4,5	3,8	4,6	4,6	3,7	4,2
- Inbertsioa landutako aktibotan	0,0	-3,2	3,6	6,7	8,1	8,5	6,7
- Inbertsioa eraikuntzan	4,6	4,3	3,5	3,4	3,3	3,1	3,3
Barne eskaria	2,7	2,5	2,3	2,5	2,4	2,1	2,3
Esportazioak	5,3	5,5	5,0	4,5	4,2	3,9	4,4
Inportazioak	4,1	3,8	4,2	4,3	3,9	3,7	4,0

Iturria: CEPREDE.

Enpleguaren bilakaeraz dagoen batez besteko iritzia %2,8an dago 2017rako eta %2,2an, berriz, 2018rako. Batez besteko langabezia tasa %17,1era jaitsiko da 2017an eta %15,3ra 2018an. Oro har, baikortasuna da nagusi, baina 2018ko enpleguaren datuek okerrera egin dute aurreko paneletakoekin alderatuta.

Eustatek osatzen dituen hiruhilekoko kontu ekonomikoen emaitza berriak argitaratuta eta eskura dauden koiunturako adierazleak aztertuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa eguneratu du, hiruhilekoka eta 2017 eta 2018 urteetarako. Hori horrela, urte osorako batez besteko hazkunde tasa %2,9an kokatu da 2017rako, argitaratu zen aurreko eszenategiaren maila berean, eta %2,5ean, berriz, 2018rako, hamarren bat gora zuzenduta.

EAEko ekonomiaren hazkundera barne eskarian oinarrituko da oraindik. Osagai horrek 3,0 puntuko ekarpena egingo dio BPGaren hazkundeari 2017an eta 2,6 puntukoa, berriz, 2018an. Familiek kontsumoan egingo duten gastua nabarmen haziko da berriro eta hainbat ziotan oinarrituko da, hala nola ekonomia inguruneaz dauden igurikimen baikorragoetan, lan merkatuaren hobekuntzan eta errenta efektuan. Barne eskari pribatuaren beste osagaiak, hots, kapital eraketa gordinak, goranzko joerari eutsiko dio enpresarien konfiantza areagotu delako, negozioen ingurunean hautematen den baikortasunak iradokitzen duenez. Negozioak aurrera

ateratzeko baldintzak, soldata kostuak zertxobait igo diren arren, hobezinak dira, energiako kostuen hazkundera neurritsua delako, finantza kostuak txikiak direlako eta salmenten prezioak handitu direlako. Beste aldetik, kanpo eskariak ekarpen zertxobait negatiboa baina txikia egingo dio EAEko BPGaren hazkunderari.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2017ko abendua)

Urte arteko aldakuntza tasak


	2017	2017	2018				2018
	IV		I	II	III	IV	
BPG	3,0	2,9	2,9	2,5	2,3	2,2	2,5
Azken kontsumoa	2,9	2,8	2,6	2,4	2,1	2,1	2,3
Kontsumo pribatua	3,1	3,0	2,8	2,5	2,2	2,2	2,4
Kontsumo publikoa	1,9	2,1	1,9	1,7	1,5	1,7	1,7
Kapital eraketa gordina	3,3	3,3	3,2	3,2	3,4	3,4	3,3
Barne eskariaren ekarpena	3,1	3,0	2,9	2,7	2,5	2,4	2,6
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,1	-0,1	0,0	-0,2	-0,2	-0,2	-0,1
Lehen arloa	-4,0	0,9	2,4	-1,5	-6,4	-8,0	-3,4
Industria eta energia	2,9	2,5	2,9	2,7	2,8	2,8	2,8
Eraikuntza	2,5	2,4	2,0	1,8	1,8	1,5	1,8
Zerbitzuak	3,1	3,1	2,9	2,7	2,4	2,3	2,6
Balio erantsi gordina	3,0	2,9	2,9	2,6	2,3	2,2	2,5
Ekoizkinen gaineko zergak	2,9	2,9	2,5	2,2	2,2	1,9	2,2
BPGaren deflatorea	1,2	1,0	1,4	1,6	1,8	1,8	1,7
Enplegua	1,9	2,0	1,9	1,7	1,6	1,4	1,7
Langabezia tasa	11,1	11,3	11,0	10,6	10,3	10,3	10,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Eskaintzari dagokionez, oraingo aurreikuspenek aurreko eszenategiaren antzeko igurikimenak azalarazten ditu. Izan ere, hazkunde orokorrak espero dira jarduera adar guztietan. Salbuespen bakarra lehen arloa da, gorabehera handiak izaten baititu, kontuan hartu den epealdi osoan EAEko ekoizpen jarduerari ekarpen negatiboa egin diezaiokeelako. Industriak bizkortzeko ibilbidea marraztuko du bere jardueran eta zerbitzuekin batera osagai dinamikoena izango da balio erantsiari eginiko ekarpenari begiratuta. Eraikuntzari dagokionez, aurreikusi diren hazkunde tasek baieztatzen dute sektorearen susperraldia datozen hiruhilekoetan finkatuko dela.

Aurreikuspenen berrikusketa Urte arteko aldakuntza tasak

2017 urtea



2018 urtea



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Lan merkatuaren aldagaiez aurkezten den aurreikuspen berriak adierazten du enplegua %2,0 handituko dela 2017an eta %1,7ko aldakuntza espero dela 2018an. Beste aldetik, langabezia tasa zertxobait beherantz zuzendu da eta orain %11,3an aurreikusten da 2017ko batez bestekoa. Datorren urtean tasa hori %10,6ra jaitsiko da. Azkenik, prezioek igoera neurritsua izango dute eta BPGaren deflatorea 2017ko batez bestekoan %1,0 igoko dela aurreikusten da, datorren urtean goranzko joera leunari eutsiko diolarik eta urte osoko batez bestekoan %1,7ko gehikuntza jasoko du.